

Baserrian ala kalean obeto?

“Nun da nekazaria?” abesten ari ziren oraindik orain Gijuzkoako errixa batean, festa egunez, soñujoleak. Ez dakit dantzan zehiltzan gaztetxoak baserrikoak ala kalekoak ziren. Kalekoak, noski.

Nun da nekazaria? Sasoia ere alakoa da eta baserrian, noski, lan eta lan, jo eta ke. Belar ontzen, agian. Ez dauka dantzarako astirik. Ezin egin ahala lan dauka eskuartean.

Nun da nekazaria? Baserrian, bakardadeaz eta lanaz, okutirik. Kalera jeisteko irrikatzen. Kaleko zarataren eta jende pilloaren egarritz.

Eta ez da arritzeko. Baserria ez da kaletik ematen duen bezain eder eta zoragarri. Eguzkitik eguzkira lana, jan aukerarik ez, lagunarte motza, ezin-bizi latza, etorkizunik gabe, zahar eta gazteen arteko burruka sukalde berean, atsedean eta jolasik eza, kultura bideak auzoan...

Asperuta, nekazaria, baserrian. Nazkatuta, kalean, ikusten denez zenbait tokitan kaletarra.

USAn, “gazteetarik % 85-ek kaletik, hiritik alegia, aldegin nahi dutela. Nora ote? Herri txikitara batzuek, hiri-inguruetara beste batzuek; baina baserria gehienek: mutiletarik % 28,2-k eta nesketarik % 35,8-k baserriar izan nahi lukete”.

“...Suezia dator, USArean orpotik, Europako aintzindari. Frantziar bertan, atzerago, ia bostehun “komuna” daude gaur”.

Arrigarri eta berri den beste zerbaite ere ari omen da gertatzen USAn: “postu inportantei utzita, lan txikitara bihurtzen direla, gizatar kutsua duten eginkizun apaletara eta esku-lanetara beraz. Ekonomi-mailan jexi beharrak ez omen ditu inolaz ere atzera arazten”.

Bakardadeak eta lanak ez ezik jendearen emanak, zaratak, dantzak, jolasak, zurrutak, diruak eta abarrek ere okitu egiten du jendea. Ez dituzte ekonomiak eta politikak gizonaren arazo guztiak konpontzen. Zibilizazioa bera bihurtu da gizonarentzat gogaikarri. Kale zuloak ere nazkatu egin du jendea.

Eta ostera mendiruntz abiatu da. Berrito baserria du amets. Baserriko pakea. Baserriko bizimodua.

Izan ere zulo bat itxi eta beste bat ireki egin ohi zaigu gizonoi. Arazo bat zuzendu eta beste sortu. Orregatik erakunde berri bat ez ezik zibilazio berri bat ere eskatzen du gaurko gizonak. Ez dio erdizkako erantzun bat eman nahi bere bizitzari, erantzun oso bat baizik.

ZANTZUAK GERO ETA NABARMENAGO

USAKO gazterian aste hauetan egin den inkestak batek, hau erakutsi du: gazteetarik % 85ek kaletik, hiritik alegia, aldegin nahi dutela. Nora ote? Herri txikitara batzuek, hiri-inguruetara beste batzuek; baina baserria gehienek: mutiletarik % 28,2-k eta nesketarik % 35,8-k baserriar izan nahi lukete. Dirudienez, beraz, amerikatar gazteek hiritik urrunduz nahi dute, eta lazdira hurbildu.

Soziologiariek bazekiten hau. Besteak beste, Morin-ek. Mendirako joera hori gero eta indar handiagoa ari da hartzen Ipar-Amerikan. Gazteak ez du han jasaten ahal «american way of life» delakoa (geronena funtsean, kasu!); eta etxea eta zibilizazioa utzi, eta mendira joaten hasi da aldraka. 1965-ean hasi zen joaira, eta gaur EHUN-MILAKA kondatu behar dira «komuna» delakotan bizi diren amerikatar gazteak. Badirudi, horrela, fenomeno hauxe dela, drogenaren fenomenorekin batera, gaur USAn gertatzen ari den bortizena. Eta gogoan har, bestalde, beste askotan esan izan dudana bezala, biak direla sinu berekoak.

Eta eskuarki gertatu ohi den bezala, Suezia dator, USArean orpotik, Europa-ko aintzindari. Frantziar bertan, atzerago, ia bostehun «komuna» daude gaur. Hain zuzen ere, egun hauetan eza ematen dute argitaratara R.P. Droit-ek eta A. Gallien-ek horri buruzko beren liburua («La Chasse au Bonheur» - Edit. Calman Lévy - 19,50 FF).

«Komuna» delakoen fenomenoak, halere, gazteen artean gertatu ohi da gehienez; eta kezkatu nahi ez dutenen erantzuna ez zen oso zaila: «gazteen kontuak dituk horiek! pasa egingo zaiek!»

Hots, USAn bertan, eta gaurtxe ere, beste fenomeno harrigarri eta berri bat ari da indartzen: «The executives drop out» diote han; alegia, industri-buruzagiek, aparatoko buruek, kuadroek hortaz, hanka egiten dutela; eta postu inportantei utzita, lan txikitara bihurtzen direla, gizatar kutsua duten eginkizun apaletara eta esku-lanetara beraz. Ekonomi-mailan jexi behar berriki azaltzen zenez, amerikatar gazteek nahiago dute txiro izan, baina ximpleki bizi.

Fenomenoak, hortaz, ezin sakonagoa da; eta «ez, ez dut nahi zibilizatorik» gure kantariak esan zuten, uste baino zehazkiago adierazi zuen, ene ustez, gaurko ukorearen kaxoa: zibilizazioa bera dago kinkan, ez sistema hau edo hura bakarrik. Marcuse eta Shri Aurobindo ez daude elkargandik urrun.

Badira, iraultza maila batetan, zibilizazio hau ukatu gabe, sistema edo gizarte-antolakera soilki aldatu edo irauli nahi luketenak. Hauen ustez, gaurko arazoa ekonomiarren eta politikaren mailan konpon liteke: errudun bakarra «burgesia» da. Zibilizazioari buruz erreformista epelak dira hauek. Eta inkestek erakutsi dutenez, eta

bidezko denez bestalde, artikulu honetan aipatzen dugun ihes-egiera zabal horretan oso iraultzaile politiko gutxi aurkitzen da «ihes» egindakoen artean.

Baina badira, beste iraultza-maila sakonago batetan, zibilizazio hau oski ukatu, sistema ez baina helburuak berak gaitzetsi, eta zeharo beste era batera bizi nahi dutenak. Bigarren talde honetan politikasi-nismena urri, zibilizazioa bera josten baitute erunduntzat. Inkestek erakusten dutenez, tankera honetako jendeak dira gehienak aldegiaren fenomeno horretan: jende horrek EZ DU SINESTEN. Eta gisa da hala izatea hauek. Zibilizazioaren arabera, hortaz, hauek dira egiezkotza iraultzaileak, hauek ez baitute «erreforma-tan sinesten... Aitzitik, hauen ustez, lehenengo taldekoak atzerakoak dira, kontserbakorrak, eta errazionario huts hitz batez.

Utopiak betekizun sakona du gizaduan, batez ere desordeneraren taxutzaile eta helburu emale den aldetik. Luzaz mintza gintezke utopiarren alderdi onez eta txarrez, eta halako batez agian egingo dut; baina ez hemen. Askiz izan bedi ohar hau: bi talde horietan utopia ugari dagoela.

Baina saiakuntzak jorratuko ditugatik eta gezurrak kondairaren gainbahe gupidagabean. Beretzeta eginen hasi da «komuna» horietan. Etsu-askatasun osoak, esate baterako, ez du ia inon ondorio onik ekarri, eta bai antz istilu gorri; eta «komuna» gehienetan baztertua izan da. Haurrekiko hoztasunak, bide beretik, alegia fameliaren kontrako erabaki «hotzek», gaurza beraz: odolaren lotkia uste baino azkarturago gertatu da. Eta abar. Ideia oker asko funtsean.

Eta beraien artean, aisa gailen, Joxe Azurmendik argiro salatu duen bezala, J. J. Rousseau-oren ipuinik ipuinena: gizona ona dela, eta gizarteak egin duela gaizto. Hortaz, esan dute eta diote jarrailzaileek: gizarte-antolakera berri batek on lezake eta zoriontsu egin. Horra hor, diot nik ere, gaurko zozkoerietan (eta ez dira urri, alajainkoak!) zozoen eta ipuinik sakonena.

Gizonaren sasi-filosofia da, beraz, gaurko zibilizazio-kinkaren kaxoa; eta horretaz jabetu ez garen artean, jai dadukagu. Ez da harritzekoa Konrad Lorentzen lanak modan egotea bilatzaileen artean. Lorentzen eta Freud-ene bidez ikasi behar baitugu geure egia zer den, eta... zer ez den!

On da, beraz, eta pozgarri, zibilizazioa eta honi datxizkion gezurrak eta sasi-profetak horren nabarmenki porroskatzen ari ikustea.

Ezen erora izan behar baitzen produktibitatearen, poluzioaren, hogei miloi jenderen super-hirien eta heriotza antseptikoaren zibilizazio zozo, harropuz, huts eta baikor honen putzura baino eraman zezakeala sinesteko.

LARRSORO

Firme eusteko asmotan

Nork bere burua ongi ezagutzeko (hauke da, Sokratesen ustez, jakintzaren hastapena) behar du atzera jo. Mitxelena maisu jaunak aipatu egin gaitu herriki arabarrok, esanez, orain Arabako iraganaren gatik interes handia dela. Egia da. Baina lan hontan bi hutsune nagusi dugu nabaritzen: bata, langileak falta ditugula, eta bestea, instituzioen interes txikia nahiz hutsa. Iruinean bezala, hemen ere esan genezake, «Colegio Universitario» delakoa hemen dagoela, hemengoak ez delarik.

Jakina, ez gara hutsetik abiatzen, eta gerla aurreko eta beste gerlen aurreko eta ondoko mugimenduei zor diegu. Egun hauetan, «Manuel Irdier» Elkarteak eratu, Arabako Liburu Erakusketa bat dago Gasteizko Museon. Katalogo luze-luzean dugu Araba ezagutzeko oinharri ederra.

Oso polita da erakusketa hori, bai. Baina ni beldur naiz: nehoiz baino trebeagoak dira gure dantzariak Euskal Herrian, nehoiz baino ezagutuago gure euskara, nehoiz baino ikasiago gure historia, eta abar, eta abar, baina baita ere nehoiz baino kanpotarra gure erroheria eta dantza lekuak, nehoiz baino hedatuago gure artean Frantzia eta Espaniako erdarak, nehoiz

baino geure etxen morroioa, eta abar, eta abar.

Araba aldean hobekien lan egiten duten kultur-sailak historia, arkeologia, etnografia, pintura, dantza eta kantua dira.

Etnografiari dagokionez, Nafarroan bezala hemen ere erakunde bat egin nahi da, bere aldirikariek. Hala biz. Honen egiteko inportante bat leku-izenak biltzea da: hori bait da Arabako hizkuntza zaharra ezagutzeko ia bide bakarra. Hortan dugu esperantza handia.

Bestela, zer esan? Erdalzealek dira noski jo eta keari Arabako aurregi zakar berri hori goratzen. Horitarako bai badira diru eta instituzioak. Eta ez dira, ez erdalzeale guztiak ezikasiak. «Doktora» batek izkribaturiko lan bat ikusita, Arabako euskaldunok «ovni»-ak garela pentsa dezakegu. Eta beste bat, bere karrerarekin eta gutzi, kezatzen zen berriki giputz eta bizkaitar inperialismoaren gatik, arabarrok haurrei euskal izenak ipintzen dizkiegula-koz. Hara!

Baiezkor ala ezezkor naizen galdetuko didazue, beharbada. Eta neronek erantzungo, Ernst Bloch-ek bezala: Das Prinzip Hoffnung, alegia, esperantza oinharri.

Daniel Ibargoiti

Ur-neurlariak: TAVIRA DELAUNET

CONEX-SANBRA: Ur-bide era berria

Txaramillak

iberconta
IBERICA DE CONTADORES Y APARATOS DE PRECISION, S. A.

Bilbon: Henaio, 23

Donostian: Aldamar, 14

Iruñean: P. Calatayud, 18

Madrillen: Gral. Sanjurjo, 18

ñoiz ikusi ez bezalakoa

Piper

Gaur jo, eta bihar ikasiko duzu



BENGDA



HAMMOND ORGANOS

Victor Pradera, 27

Elektroakustiko-injenieritza

DONOSTIA



Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan 300 pezeta
Korreo batasunetako errietan 350 pezeta
Atzerietako beste errietan 370 pezeta
Aidez Aurrez galdetu
Salmetan (ala bakoitz) 7 pezeta